



Donostian, 2014ko apirilaren 4an

## **ERAKUNDE ADIERAZPENA**

### **ALDEZ AURRETIK KALTEDUN AITORTUTAKO GAL ETA BESTE TALDE BATZUEN BIKTIMEI KALTE-ORDAINAK ORDAINTZEKO UKOARI BURUZKOA**

Orain egun batzuk jakin genuenez, Espainiako estatua –zehazki, Barne Ministerioa– urratzen ari da Euskal Herrian hainbat urtez izandako gatazkaren biktimen eskubideak, eta gertaera zinez larria dela irizten diogu.

Eusko Legebiltzarrean bertan, izen handiko kideek gai honi buruzko iritzia eman dute, eta, besteak beste, adierazi dute litekeena dela Espainiako barne ministro Jorge Fernández Díazek prebarikazio delitua egin izana, kalte-ordainak ukatu baitizkiete alde z aurretik kaltetun aitortutako GAL eta beste talde batzuen biktimei.

UPV/EHUko Zigor Zuzenbideko katedradun Ignacio Muñagorrik egindako adierazpenak dira horren erakusgarri. Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean agerraldia egin zuen, hain zuzen ere, Zigor Zuzenbideko irakasle Ana Pérez Machorekin, eta txostena aurkeztu zuen GAL, Batallón Vasco Español (BVE) eta Triple A taldeen biktimei laguntzak ukatu izanari buruz; txosten horren arabera, laguntzak ukatu izanak agerian uzten du legea betetzeko borondaterik eza, diskriminazio jarrera eta, zoritxarrez, oraindik badela politikaren esparruan legeak bere interesen arabera erabili nahi duenik, baita horretarako aitortutako biktimen eskubideak urratu behar badituzte ere.

Eskuin muturreko talde horien 30 biktima inguruk laguntzak eguneratzeko eskaria egin zuten; alde z aurretik jasotzen ari ziren laguntzak, biktima aitortuta zeudenez, eta, orain, aldiz, ukatu egin dizkiete.

## **ERAKUNDE ADIERAZPENA**

1. Donostiako Udalak Espainiako estatuari eskatzen dio bertan behera utz dezala estatu terrorismoaren, GALen eta beste talde batzuen biktimekiko diskriminazio politika eta aitor diezazkiela dagozkien eskubideak berehala.
2. Donostiako Udalak salatu nahi du Espainiako estatuko gobernuak biktimekiko diskriminazio jarrera nabarmena darabilela, uko egiten baitio haien eskubideak aitortzeari; ildo horretatik, bereziki salatu nahi du barne ministroaren jarrera, eskubide demokratikoak urratzen dituen jokabide bat babestu izanagatik.
3. Donostiako Udalak gatazkaren biktima guztien aitortza aldarrikatzen du, eta eskatzen du egin daitezela gatazka behin betiko amaitzeko egin beharreko urratsak; era berean eskatzen du bertan behera uzteko salaketan adierazitakoaren



BILDU Talde Politikoa  
Grupo Político BILDU

---

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 – Faxa 943481720 - [www.donostia.org](http://www.donostia.org)  
20003 Donostia-San Sebastián

moduko diskriminazio oro, legea betetzeko eta pertsona guztien eskubideak errespetatzeko borondaterik ezaren erakusgarri baitira.

Josu Ruiz Martin,  
Bildu udal taldearen bozeramailea.